

## Plaza hartu dute dantzari txikiek

Erketz EDTK antolatuta, 32. Dantzari Txiki Egunean parte hartu dute lau taldek, Erketz bera eta Kukuka herritarrek tartean / 5

TXINTXARRI

## Inurri lanari aitortza

Ostadar SKTren Auzolan saria jaso du Izan Iñurri elkarteak. "Ohore" handia izan dela aitortu diote kideek TXINTXARRI-ri / 9

Aste Berdea egiten ari dira herrian: besteak beste, Lasarte-Oriako toponimiari buruz jardun dira / 2

Ruben Lucasen afixa izan da garaile. Horrek iragarriko ditu aurtengo San Pedro Jaiak / 3

Kukuka eskolak XX. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du; desfile batekin hasiko da, hilaren 6an / 6

Bertso irakurraldia egin dute, Uxue Alberdik idatzitako 'Dendaostekoak' eleberrian oinarrituta / 7

Gazteen Mailako Eguzki Areto Futbol taldeak Udaberri Torneo irabazi du, Aldapeta C garaituta / 10

Errugbiko Izar Beltzak oroimenezkoa jokatu da hilaren 4an, Michelin kirol gunean / 13

ORAIN, DENA EDUKITZEA ERRAZAGO DA:

ATERA ARGAZKI BAT IRAGARKI HONI,  
ZATOZ GURE OPTIKARA ETA LORTU

# 50€

ARTEKO DESKONTUA ZURE  
MÓ BETAURREKO GRADUATUETAN\*

\*2022/06/30era arte. 500€ edo gehiagoko erosketetan aplikatuko da. Hortik beherakoetan, 20 €-ko deskontua egingo da.



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com   



Luis Mari Zaldua, herriko toponimia ezagutzeko ibilaldira bertaratutakoei azalpenak ematen, Tximistarreta parkean. TXINTXARRI

# "Oso zaila izango litzateke bizitzea guretzat, toki izenik gabe"

**LUIS MARI ZALDUA** TOPONIMIAN ADITUA

Toki izenak "oso praktikoak eta erabilgarriak" direla azpimarratu du Zalduak. Gure herrian izan da, Aste Berdean parte hartzen; Lasarte-Oriako toponimiari buruz hitz egin du

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

*Toki izenak: inguruaren aurkibide ibilaldiaz gozatu dute dozenaka herritarrek berriki, Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz enpresak elkarrekin antolatu duten Aste Berdean. Toponimian aditua den Luis Mari Zalduak eman dizkie azalpenak partaideei. Gai horri buruz gehiago jakiteko, harekin elkartu da TXINTXARRI.*

**Zer da toponimia?**

Toponimo bat da toki baten izena; segun eta zer ezaugarri dituen, kategoria batean edo bestean

dago. Azpikategoria mordoa daude. Zuhaitzekin zerikusia dutenei, adibidez, dendronimo deitzen zaie.

Esango nuke toponimia palimpsesto bat dela. Eta zer da hori? Garai batean, ez zuten paperean idazten, pergaminoetan baizik, normalean txekorrenak izaten ziren larru zatietan. Preziatuak ziren oso. Horietan idatzi eta 100-200 urtetara, berriak erosteko dirurik ez zutenean, hauxe egiten zuten: idatzita zegoena ezabatu, eta gainean

berriidatzi. Toki izenak, hein batean, hori dira: kasu honetan, euskara da pergamino, gure hizkuntza, eta horren gainean garai desberdinetako kontzeptuak daude idatzita.

**Zeintzuk dira toki izen baten ezaugarriak?**

Batetik, nahiz eta jendeari horrela ez iruditu, oso praktikoak eta erabilgarriak dira. Leku izenik gabe, oso zaila izango litzateke bizitzea guretzat. Esate baterako: gu biok hitzordu bat jarri behar badugu nonbait, toponimo bati



Gaztetxo bat, prismetikoak hartuta, hegazti bila. TXINTXARRI

## Txorien mundua ezagutu dute

Hilaren 5a, igandea, Ingurumenaren Mundu Eguna izango da, eta haren inguruan, Lasarte-Oriako Udalak Aste Berdea antolatu du. Ingurunea ezagutzeak hobeto ulertzen, errespetatzen eta maitatzen laguntzen duela sinetsita, Artelatz Ingurumen Zerbitzua zenbait jarduera aurrera eramaten ari da. Lehen maiatzaren 29koa izan zen, txorien mundua ezagutzeko egin zutena. Gipuzkoako Foru Aldundiko basozain Mikel Olanok eman zituen azalpenak. Prismetikoak eskuetan eta entzumena adi, asko ikasteko aukera izan zuten bi ordu iraun zituen txangoan.

Gaur, hilak 3, birziklatzearen erronka egingo dute: informazio gune bat jarriko dute Okendon, 16:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, Oria ibaiertza garbitzera joango dira; 09:30ean geratu dira, Okendon bertan.

esker jakingo dugu nora joan. Hipodromoko zubian elkar ikusiko dugula adosten badugu, adibidez. Bestetik, eta ziurrenik horregatik izango dira horren interesgarriak zenbaitentzat, oso iraunkorrek dira denboran. Hitz arruntekin gertatzen ez den bezala, toponimoak jatorrizko esanahia galduta ere, jendeak erabiltzen jarraitzen du: iraupena ez dago lotuta horien esanahia ulertzearekin. Hori dela eta, toki izenak milaka urte iraun ditzakete. **Zer esan nahi du, adibidez, 'Lasarte' hitzak?**

*Latx* eta *Arte* izenetatik dator. Lehenengoak erreka esan nahi du, eta bigarrena, aldiz, tartetik dator. Beraz, erreka tartea da Lasarteren esanahia. Lehen esaten nuenaren harira, hau da adibide garbi bat: jendeak ez du *latx* hitza erabiltzen egunerokoan eta galdu egin da esanahia, baina toponimoa egunero-egunero darabilte ahotan. **Herri edo hiri baten toponimia aztertzeke ikerketak nolakoak dira?** Onomasta garenok izen berezien jatorria zein den aztertzen dugu. Horretarako, bi iturri nagusi ditugu: idatzizko dokumentazioa, txostenak, paperak; eta ahozko bilketa, inguruan bizi direnei elkarriketak. Hasi ginenean

Urnietan, Lasarte-Oria, Hernani... aztertzen, jabetu ginen belaunaldi bat joaten ari zela, eta une hori baliatu genuen toki izenen gainean galdetzeko haiei.

Mapa hartuta joaten ginen haiengana, galdetzeraz. Toki izena eta informatzailea apuntatzen genituen. Batzuetan, haiek erabiltzen zuten forma eta idatzietan agertzen zirenak bat egiten zuten, Lasarte adibidez, baina beste batzuetan, desberdinak izan ohi ziren. Baserritar batengana joan, eta alboko etxaldeagatik galdetuta, Mielcampos esaten ziotela kontatu ziguten, baina dokumentuetan Miracampos azaltzen zen. Halakoetan, ahozko eta idatzizko formen arteko oreka bat bilatzea da funtsezkoena, betiere benetako jatorria eta izenaren nolakotasuna errespetatuta. Izan ere, herritarrek identifikatzeko modukoa behar du izan, haiek erabili izan dutena ez bada ere, zehatz-mehatz.

Gizakion joera naturala da ahalik eta gutxien nekatzea, baita hitz egiterakoan ere. Idazkiak, aldiz, kontserbatzaileak dira. Ongi dago antzinako formak bere horretan berreskuratzea, baina tentuz, identifikagarriak izan behar dutelako.

# Jaietako jarduera esanguratsuen iragarle

Hamasei lan aurkeztu dituzte lehiaketara eta Ruben Lucasena izan da garaile. Udalaren irudi korporatiboa oinarri hartuta osatu du lana, eta bertan irudikatu ditu sanpedroetako jarduera nagusienak: txupinazoa, Sorgin Dantza, buruhandiak eta danborrada

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ezagutarazi du 2022. urteko San Pedro Jaiak iragarriko dituen afixa. Hamasei lan aurkeztu dira aurtengo lehiaketara, eta Ruben Lucas Garciarena izan da garailea; 600 euro irabazi ditu.

Udalaren irudi korporatiboa oinarri hartuta osatu du lana, eta bertan irudikatu ditu sanpedroetako jarduera nagusienak: txupinazoa, Sorgin Dantza, buruhandiak eta danborrada. Parte hartze prozesua abiatu zuen udalak herritarrek lan guztien artean gustukoena bozka zezaten, eta horiekin batera, aurrez izendatutako epaimahai profesional batek ere eman du bere iritzia.

Hilaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko dira aurtengo jaiak gozamenarako hainbat jarduera izango dituzte herritarrek. Sorgin Jaiak-ek eta udalak oraindik egitarauak aurkeztu ez dituzten arren, azken horrek aurtengo festetarako kontratatu dituen musika taldeak ezagutarazi ditu. Aurtengoak, urtero legez, Okendo eta Isla plazetan izango dira, baina ez da bakar bat ere izango Jaizkibelekoan, Sasoetako



Txus Alonso ezkerrean eta Agustin Valdivia eskuinean, afixa irabazlearekin. TXINTXARRI

bajuen eraiste lanak direla eta.

Kinada talde lasarteoriatarra izango da Okendoko oholtzara igoko den lehena; ekainaren 29an joko dute. Uztailearen 1ean, berriz, Motxila 21, El Drogas eta Zea Mays taldeen txanda izango da, eta 2an, Modus Operandiren eta Skakeitanen doinuen erritmora dantzatuko dute herritarrek.

Isla plazan, Duo Imperial arituko da hilaren 28an. San Pedro Egunean, hurrengo egunean, ekainak 29, Gauargi erromeriak girotuko du gaua. Hilaren 30ean Azabacheren

emanaldia izango da, eta ostiralean, uztailearen lehenean, berriz, La década prodigiosa arituko da oholtza gainean. Jaietako amaiera emateko, uztailearen 2an talde lasarteoriatar batek girotuko du gaua, Ibai Berriak.

Aurtengo jaietan gazte eta nerabeei zuzendutako espazio bat bideratzea erabaki du udalak. Horrela, Oriarte institutuko patioan estalki bat jarriko du, eta bertan arituko dira Gaztelekuan entseatzeko duten musika talde lasarteoriatarrek. Horrez gain, jakinarazi du. DJak ere ariko direla.



NEURE KABUZ  
GORKA ALVAREZ

## Herrien izana, izena eta bizia

Badatoz eta guztiok pozten gara euren etorreraren iragarpenekin. Gertu ditugu eta bizi nahi ditugu. Aurreko urtetakoak, hamarkadetakoak, antzinakoak oroitzen ditugu eta errepikatzea nahi dugu. Herri ororen bizi poza direlako, herri baten izaera suspertzen dutelako. Herria bera direlako. Aurtengoan berriz, bizi-bizi etorriko zaizkigu horrenbeste faltan bota ditugun herriko jai zein ekintza desberdinak.

Gutxi baloratzen genituen pandemia aurreko ekitaldi sozial, bizi, elkarreragile, parte-hartzaile eta gureak diren festak. Festek izaera desberdina izan dezakete, kirol festak izan daitezke, herri tradizioetan oinarrituriko jaiak, hizkuntzaren ingurukoak baina guztiek dute amankomunean talde izaera sutsua. Talde diot ez baita erraza azken garai hauetan, jendea elkarrekin gozatzeko. Bada garaia kolektiboan oinarrituriko ekintzak bere osotasunean berreskuratzeko. Lehengoa oroitu, biziberritu, izendatu eta berriz ere bizi.

Hortxe gaude, bizipen berri kolektiboak eraikitzen bidean. Zabaletako jaiak, San Pedroak, Santa Ana jaiak, ate joka ditugu beste hainbat ekintzen artean. Ezin ahaztu kaxoian isilpean gordeta egon diren eta herriaren identitatea garbi isladatzen duten euskararen maratoia eta Lasarte-Oria bai krosaren parekoak diren beste hainbat.

Badatoz, bagatoz, bagoaz berriz ere biziberritzera. Bagoaz oraingoan ere ohiturak mantentzen, sinesmenak berritzera, herri baten izaeran sinestera. Izan ere, herri baten oroimenean sendo errotzen dira bere festetan ematen diren gertakari eta ekintzak. Merezki dugulako, goza ditzagun aurtengo herriko jai guztiak Lasarte-Oriatar gisara, bakoitzak nahi duen erara, elkar errespetatuz, erasorik gabeko giroan eta kontuan izanda, herritarrek egiten dutela eta egingo dutela Lasarte-Oria aberatsa, bere aktiborik garrantzitsuenen, herri izaera mantentzean, errotzean eta sakontzean.

## Lanaldi jarraituarekin jarraitzea eskatzeko, kontzentrazioak

Datorren ikasturtean ez dute lanaldi trinkoa izango EAEko institutuek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hala "inposatu" duelako, Oriartekide guraso elkarteak salatu duenez. Hori arbuia eta jardunaldi

jarraituarekin jarraitzea eskatzeko, hogeituro minutuko kontzentrazio bana egingo du hilaren 3an, 10ean eta 17an, Oriarte Landaberri eraikinean, 14:10ean. Sinadurak ere bilduko dituzte Okendo plazan nahiz Zabaleta auzoan: hilaren 3an 17:30etik 19:00etara jarriko dituzte postuak, eta 4an, 12:00etatik 13:30era.

## Patxintxi sariak 2022

- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?

- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan?

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure hautagaiaren argazkia

Zuzenean igotzeko:



## Patxintxi sariak 2022

65 urtetik gorako pertsona maitagarri eta goxoena

Bidali zure hautagaiak ekainaren 14ra arte

Ttakuneko bulegoan, kultura@ttakun.eus-era, 695 78 53 89, Ttakuneko sare sozialetara

Sari banaketa San Pedroetako txupinean!



Lasarte-Oriako EH Bilduko kideek 2022ko aurrekontuetarako egindako lan ildoen proposamenak jakinarazi dituzte. TXINTXARRI

## Etorkizuneko erronkei begirako zazpi lan ildo

2022ko aurrekontuetarako egindako hasierako planteamendua egokitu du EH Bilduk. Etxebizitzaren, berdintasunaren, politika sozial eta industrialen, kulturaren, mugikortasun jasangarriaren eta azpiegituren gaineko proposamen estrategikoak egin ditu

### Txintxarri

Herriaren garapenerako lan ildo estretegikoak direla uste du EH Bilduk. Jakinarazi du udal gobernuarekin adostasuna lortzen ahalegindu den arren, negoziaketetan ez dutela erantzun positiborik jaso. Orain, udalbatzako gainerako talde politikoekin elkartuko da proposamena egin eta horiek garatzeko aukerarik ote dagoen aztertzeke.

Honako hauek dira zazpi ardatzak. Etxebizitza politika publikoei dagokienez, udalaren

jabetzako etxebizitzak alokairu sozialera bideratzea eta Kotxerako hirigintza garapenean udalaren jabetzakoak izango direnak, etxebizitza publikotarako erabiltzea.

Berdintasun teknikariaren postua sortzea eta kontratatzea ere planteatu du eta politika sozialei dagokionez, egungo "defizit asistentzialari" erantzuteko eta "politika sozial eraginkorrak" egiteko bi gizarte langileren eta administrari baten postuak sortzea eta kontratatzea ere bai. Politika

industrialari dagokionez, dagoena babestu eta sendotzeaz gain, jarduera ekonomiko berriak era kartzeko Oriako industriagunean birgaitu, berrurbanizatu eta birdensifikatzea proposatu du. Kulturari ere erreparatu dio. Zumaburuko euskaltegi zaharreko eraikina egokitu, eraberritu eta herriko kultur eragileei esleitzeko eskaera egin du. Kale nagusia oinezkoetako proposamena ere egin du, eta, azkenik, Askatasunaren plazan aterpea jartzea galdegin.

## Herriko sindikatuen elkartasuna jaso dute

Maiatzeko Azken Ostiralean herriko sindikatuen elkartasuna jaso dute Lasarte-Oriako Sareko kideek. Elizatzen elkartu eta handik Okendora bidea egin dute 30 bat lagunek

### Txintxarri

Askotan errepikatutako aldarriei erreferentzia egin zieten beste behin Sarek eta Etxeratek: salbuespen legedia eta hura aldatzeko Espainiako Estatuaren borondate politiko eza. Hala, "eskubide urraketa sistematikoa"

salatu zuten, besteak beste, espetxe lege arrunta aplikatzea blokeatu izana, gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean mantentzea edo Frantzian betetako kondenak ez batzea.

Halaber, gogoratu zuten Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko

presidenteak espetxe politika aldatuko zuela iragarri zuenetik lau urte igaro direnean, ez dela "dispertsioaren eta urruntzearen zikloa behi betiko itxi euskal presoentzat". 65 preso urrunduta jarraitzen dute espainiar Estatuan eta beste hemeretzi gehiagok frantziarrean.

Herriko CNT, ELA, LAB, HIRU eta Steilas sindikatuek bat egin zuten maiatzeko Azken Ostiralekin, beraiek ere "bidea egin nahi" dutelako. Okendo plazara iristean, LABeko Maider Izagirrek, mikroa eskuan, idatzi bat irakurri zuen, elebitan. Bai eskubideen urraketaekin bai salbuespenezko espetxe politikarekin amaitzeko garaia



Muntteri AEK euskaltegiko kideak, eraikinaren atarian. TXINTXARRI

## 22-23 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea ireki du AEK-k

**Hilaren 30a baino lehen aurrematrikula egiten dutenek %5eko deskontua eta ordainketa malguagoa egiteko aukera izango dute.**

Datorren ikasturtea prestatzen hasiak dira Muntteri AEK euskaltegian, eta helburu nagusia da urritik aurrera ohiko ikastaroekin segitzea, euskaltegietan aurrez aurreko taldeak izango dira, autoikaskuntza, online ikastaroak eta jardun biko erudia ere eskainiko ditu.

Aurrematrikula webgunean egiteko aukera zabaldu dute. Hilaren 30a baino lehen aurrematrikula egiten dutenek %5eko deskontua izango dute, eta ordainketa malgutasunez egiteko aukera, ohiko ordainketa-epeei epe bat gehituta. Gainera, taldeak eratzeko orduan lehentasuna izango dute.

Izen-ematea irekita dago eta hilaren 30era arte egin daiteke, [www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean, Muntteri AEKn (Geltoki kalea, 17 Lasarte-Oria) edo 607 62 52 33 telefonora deituta.

Aurrematrikularen prezioa (lehenengo ordainketa): 100 euro. Ikastaroa ez egitea erabakitzen bada, aurrematrikularen %100 itzuliko da ikastaroa hasi baino lehen jakinaraziz gero. Behin ikastaroa hasita, matrikula itzultzeko ohiko baldintzak aplikatuko dira.



30 bat lagun batu dira maiatzeko Azken Ostiralean. TXINTXARRI

dela berretsi zuten, "etxera itzultzeko pausoak ematekoa".

Horretarako "ohiko legedia ezarri" behar zaie euskal presoei eta gradu progresio

prozesua "desblokeatu", baita gaixo larriak diren presoak etxean artatu eta senideen eskubideak errespetatu ere, besteak beste.

# Dantzari txikiek hartu dute Lasarte-Oria

Lau dantza taldetako kide gazteek gorputza mugitzen duten abilezia erakutsi dute 32. Dantzari Txiki Egunean. Andatza plazan elkartu, auzoz auzo erakustalditxoak egin eta Okendo plazan eskaini dute emanaldi nagusia, guraso eta lagunen aurrean

## Txintzarri

Bi urteko hutsunearen ondoren, dantzari gazteek kaleak bete zituzten maiatzaren 29an. Berriro elkartu ziren 32. Dantzari Txiki Egunean Faltzesko Makaia, Usurbilgo Orbeldi, Kukuka eta Erketzeko dantzariak. Dantza gogoz egin dute, baina, bereziki, ondo pasa dute, eta momentu barregarriren bat edo beste oparitu ere.

Andatza plaza izan zuten lehen topagune. Ordua baino lehen, bertan ziren Usurbilgo bi taldeetako kideak. Entseatu, argazkiak batzuk atera (eta ateratzen utzi), eta elkarrekin jolastu zuten, gainerako dantzariak

bertaratu ziren artean. Denak elkartzean, hamaiketako goxo bat eman zieten.

## Erakustalditxoak, auzoz auzo

Ordua heldu zenean, Ttiriki Ttarrakako musikariek lagunduta hasi zuten desfilea. Nafarrekin eta Erketzeko kideek lehen geldialdia, Oriarte Landaberri institutuaren atarian egin zuten. Dantza bana eskaini zieten inguruan bildu zirenei, txistularien doinua jarraituta. Handik aurrera jarraitu zuten herria girotzen, Okendoko emanaldia heldu zen arte.

Plazan jarritako hesiaren barrualdean, zoruan eseri ziren

dantzari txiki guztiak. Mugaren beste aldean, ikusleak. Eguraldi onak lagunduta, asko izan ziren saioa ikustera joandakoak. Talde bakoitzak prestatutako dantza bat edo bi egin zituen, arkuekin, makilekin, sueltoan, binaka, taldean... Era askotan mugitu zuten gorputza. Batzuetan, borroka jolasean ari zirela zirudien, are gehiago barrez lehertzen ari zirelako neskatoak. Ondo pasatu zuten seinale. Eguzkipean erakutsitako trebeziak ere bere saria izan zuen, eguna bezalako txalo sorta beroa. Bazkalostean, elkarri agur esan aurretik, jokoak egin zituzten plazan bertan.



Ttiriki Ttarraka eskolako lagunek gidatu zuten desfilea. TXINTXARRI



Dantza taldeetako gazteek Okendon egin zituzten emanaldi nagusiak. TXINTXARRI

# Ikus-entzuleek gogotik gozatu dute Suedia eta Irungo ahotsez, XVII. Musika Topaketetan

Emanaldi ederrak egin dituzte Helsingborgs-eko Ahots Taldeak eta Irundik etorritako Aquam Lauda koruak. Bakoitzak bere errepertorioa eskaini, eta bi kanta abestu dituzte elkarrekin

## Txintzarri

Kontzertua hasi aurretik, Danok Kideko Jesus Mari Egizabalek hitz batzuk esan zituen. Eskerrak eman zizkien bi abesbatzei, Europa iparraldetik etorritakoari bereziki. Azaldu zien komentua Brigit jainkosaren omenezkoa dela, zelten mitologiaren pertsonaia nagusietako bat dena. Eliza txiki gelditu zen, bankuak bete zituzten lasarteoriatarrek, eta zutik jarraitu zuten saioa hainbatek.

Aquam Laudako koruak hasi zuen kontzertua. Kaletik sartu dira erdiko korridorean barrena eta aldare aurrean kokatu. Lehen ilaran eserita zituzten zain Suediatik etorritako abesbatzaren kideak. *Ave maris stella*, *I believe*, *Córtame una rosa blanca* eta *Amair* abestu zituzten Javier Bustoren zuzendaritzapean, eta ondoren,




Bi koruetako kideak, Ama Brigitarren komentura sartzen. TXINTXARRI

Helsingborgs-eko kideekin batera *Ave Maria* eta *Sommarpsalm* kantak.

Txalo artean eseri ziren Aquam Laudako kideak eta lekua utzi zieten suediarrei. Hamar kantako programa eskaini zieten

bertaratutakoei. Ikus-entzuleek gogotik gozatu zuten musika topaketez, eta gustura atera ziren Ama Brigitarren komentutik, gehiagorako gogoz. Datorren urtekoetara itzarotea beste erremediorik ez dute.



TXINTXARRI

# Dantzan jarri dute Jalgi

Hango eta hemengo artistek Jalgi kafe antzokiko eszenatokira igotzen jarraitzen dute. Onki Xin taldea izan da azkena: besteak beste, 'Hikikomori' laneko abestiak partekatu zituen ikus-entzuleekin, haiek dantzan jarri.

2018an sortu zuten proiektua Zigor Lanpre herritarrek eta Fer Apoak. Berriki batu zaizkie Jon Ander Artola batera jotzailea eta Beñat Atorrasagasti gitarrista.

# Herria koloreztatuko dute Kukukako lagunek

Antzerki, dantza, kolore, irri, algara eta emozioz blaitutako astea izango da ekaineko bigarrena, Kukuka eskolak 20. Antzerki eta Dantza Astea antolatu baitu. Bide batez, jakinarazi du hilaren 6an zabalduko duela hurrengo kurtsoa aurrematrikula egiteko epea

## Txintzarri

Ikasturtean zehar mimoz eta ilusioz landutako guztia erakusteko irrikaz daude Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideak. Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, 20. Antzerki eta Dantza Astea prestatu dute, emanaldiz betetakoa: hilaren 6an hasiko da, bizi-bizi, herriko gune ugari zeharkatuko dituen desfile koloretsu batekin (Hipodromotik aterako dira, 19:00etan), eta 12an bukatu, Izan Iñurri egitasmoa lagunekin elkarlanean antolatu duten *Tabuen kutxatik oholtzara* emanaldiarekin. Bertso saio musikatu solidario bat da, eta 18:00etan hasiko da.

Bien bitartean, adin ugariak ikasleek zapalduko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholta, goizez zein arratsalde, astegun nahiz asteburu. Antzerkia, euskal dantza, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidea jorratu dituzte kurtso honetan, eta diziplina horietan oinarritutako lanak partekatuko dituzte ikusentzuleekin. Kukukako arduradunek jakinarazi dutenez, haurren emanaldiek ikusteko sarrerek euro bat balio dute, eta helduenek, 3 euro (hilaren 11ko funtzio guztiek ere bai, larunbatekoek). Herriarrek



Helduen antzerki taldeak 2019an egindako emanaldi bat. TXINTXARRI

ikuskizunak hasi baino ordubete lehenago erosi ahalko dituzte txartelak, kultur etxeko leihatilan. Bestalde, Izan Iñurriekin batera antolatutako ekimena ikusteko 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta eragile horretako kideekin kontaktuan jarri, sarrerak eskuratzeko.

Egun bakoitzeko emanaldiak hasi aurretik, II. Bideo Txapelketako lanak proiektatuko ditu Kukukak, eta hilaren 11n banatuko ditu sariak, egun horretarako programatuta

dauden funtzioak hasi baino lehen. Arduradunek herriarrek animatu dituzte kultur etxera joan eta antolatu dituzten emankizunetara.

## Aurrematrikulazio epea

Kurtsoa aste garrantzitsuetako baten atarian egonagatik, Kukuka 2022-2023 ikasturtea prestatzen ari da buru-belarri. Hala, jakinarazi du hilaren 6an irekiko duela aurrematrikula egiteko epea, hilabete amaierara arte luzatuko dena. Datorren kurtsoan antzerkia (LH1 mailatik aurrera),

euskal dantza (HH5etik aurrera), euskal dantza sorkuntza edo dantza garaikidean (azken bi modalitate horiek, LH4tik aurrera) murgildu nahi duenak hainbat bide ditu horretarako: [www.kukuka.eus](http://www.kukuka.eus) webgunea, [izenematea@kukuka.eus](mailto:izenematea@kukuka.eus) helbide elektronikoa edo 655 84 73 45 telefono zenbakia. Horrez gain, herriko ikastetxeetan izena emateko orriak banatuko ditu.

## Bazkide bila

20. Antzerki eta Dantza Astea bezalako egitasmoa ez dira egun batetik bestera egiten, eta kurtso osoko eskola, entsegu eta abarrak, zer esanik ez. Kukukako arduradunek azpimarratu dute jende gehiago behar dutela proiektua aurrera eramateko. "Egiten ari garen guztian sinesten duen, ilusioa eta indarra duen eta Kukukan inplikatu nahi duen edonor ongiatorria izango da gurekin batera lan egitera", azpimarratu dute. Horretarako interesa duenak lehen aipatutako bide horiek erabil ditzake koordinatzaileekin harremanetan jardetzeko.

Motorrak berotze aldera, Kukukako ikasleak Zabaleta auzora igotzen ari dira, festen bueltan emanaldiak egiteko. Hauek dira hurrengo egunetarako lotuta dituztenak: gaur, hilak 3, ostiralarekin, 18:00etatik aurrera antzerki saioak egingo dituzte; eta etzi, hilak 5, igandez, euskal dantza eta euskal dantza sorkuntza landu duten taldeak ariko dira frontoi alboko eremuan, 11:00etan hasita.

TXINTXARRI aldizkariak 20. Antzerki eta Dantza Astearen jarraipen berezia egingo du, paperezko edizioan zein digitalean, [www.txintzarri.eus](http://www.txintzarri.eus) webgunean.

## Egitaraua

### Ekainak 6, astelehena

- 19:00etan, desfilea, Hipodromotik abiatuta.

### Ekainak 7, asteartea

- 10:30/19:30, antzerki emanaldiak kultur etxean, LH 5-6 mailakoan: *Zer ari da gertatzen?, Arratsalde bateko abentura eta Nork pozoindu zuen Eurnezuriren sagarra?*

### Ekainak 8, asteazkena

- 09:30/10:45/19:00, antzerki emanaldiak kultur etxean: LH 1-2, *Amets batean bezala*; LH 3-4, *Zer nahi du*.

### Ekainak 9, osteguna

- 10:00/19:00, LH 2tik hasi eta DBH 2ra arteko ikasleek Zubieta murgiltzen lana emango dute.
- 19:00etan, *Zoroen mundu zoroa*, DBH1ekoan eskutik.

### Ekainak 10, ostirala

- 12:00/13:00, Euskal Dantza Sorkuntza emanaldiak: DBH 1-2, DBH 4 eta 1. Batxilergoa. *Zoroen mundu zoroa* antzerkia, DBH 1-2.
- 20:00etan, helduen taldeak: *Ilargi beteko eguna* antzezlan eta dantza garaikidea.

### Ekainak 11, larunbata

- 20:00etan, euskal dantza, HH5 eta LH 1-2. Euskal dantza sorkuntza: LH5, DBH1-2-4, Batxilergoa, gazteak eta helduak.

## Eskaintzak, tailerrak eta txu-txu trenak, Udaberri Festa amaitzeko

Lasarteoriatar ugari parte hartu dute Aterpea Merkataria eta Ostalarien Elkarteak antolatutako ekimenetan

## Txintzarri

Maiatz erdialdean hasitako sustapen kanpaina amaitzeko, Udaberri Festa hain zuzen, Aterpea elkarteak makina bat jarduera aurrera eraman zituen maiatzaren 27an eta 28an. Batetik,

haurrentzako tailerrak egin zituzten zenbait komertziotan, eta bestetik, txu-txu trenak herriko erdigunea zeharkatu zuen. Bi jardueretan herritar ugari parte hartu zuten. Horrez gain, denda dezente eskaintza bereziak egin

zizkieten bezeroei: oinetako eta arropa artean kuxkuxean aritu, eta batek baino gehiagok tatuaje berri bat egin zuen hitzordurik hartu beharrik gabe.

Zuzeneko musikak ere izan zuen tarterik egitarauan: Nahio arropa dendaren alboan DJ batek girotu zuen arratsaldea, eta The Noise Makers taldeak rock doinuak eraman zituen Largonea kaleko Arkupe tabernara. Udaberri Festa amaituta, tokiko merkataritzaren aldeko ekimenak prestatzen jarraituko du Aterpeak.



Txu-txu trenak herriko kaleak zeharkatu zituen. TXINTXARRI

# Saltzaileen bizitzako pasarteei jarriak

Uxue Alberdik idatzitako 'Dendaostekoak' eleberriko zenbait pasarte eta haiek iradokitako gaietan oinarrituta, bertso irakurraldia egin dute maiatzaren 27an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Saioa Muntteri AEK-k antolatutako Korrika Kulturalako azken ekimena izan da

## Maitane Aldanondo

Saltokietan, hitzak berak dioen bezala, salgaiak izaten dira. Zer erosi. Denda motaren arabera, bata ala bestea, objektua ala zerbitzua, diruaren truke jasotzeko. Kultur etxeako eszenarioan gauza gutxi zeuden, beharrezkoak besterik ez, eta argia ere eskas samar. Giro intimoa eta estetiko soila, apaingarri gabea. Hala ere, leku hori zapata denda, ile apaindegi, jostunaren lantegi, liburu denda edo bizitoki bilakatzeko nahikoa izan zen. Horiek denak eta gehiago maiatzaren 27an agertokian zeuden lau sortzaileek ekarri baitzituzten hitza, bertsoa eta musika baliatuta.

Nostalgiak betetako bidaiaren eraman zituzten auditoriora bertaratutakoak, mostradorearen beste aldean egon direnen bizipenak josi baitzituzten.

Dendako lanari emandako bizitzen gabeziak, hutsuneak, etsipenak eta uko egiteak agertu ziren pasarteetan, iluntasunean ere argitasunik falta izan ez bazen ere. Eta norbanakoez hitza egin arren, galtzen ari den (edo jada

galdu den) garai baten kontakizuna ere egin zuten hein batean. Iragan kutsua izan zuen Korrika Kulturalaren barruan Muntteri AEK-k antolatutako irakurraldi eta bertso saio arteko nahasketa egokiak.



Uxue Alberdik berak irakurri zituen bere eleberrirako idatzitako hitzak. TXINTXARRI



Ane Labaka herritarrak bere haurtzaroko etxeak eta garaiak gogoratu zituen. TXINTXARRI

Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak aulki aurreko atrilean zituen orriak, eta haietan, *Dendaostekoak* liburuko pertsonaia batzuek lehen pertsonan egindako gogoetak edo oroitzapenak. Altxa, eta paperari hatzekin eutsiz, bere eskuez idatzitako haien azalean jarri zen. Sentimendu eta intentzioz ahoskatu zituen hitzak, doinuarekin, erritmoarekin eta begiekin ere adieraziz esaten ari zenaren pisua.

Esandakoari indarra eta babesa eman zien Aitor Nova musikariak, saxofoia, organoa, ahotsa edota grabatutako josteko makinaren hotsak baliatuta. Liburuko Elgoibarko kaleen bizia –beste edozein herri ere izan zitekeena–, mamu bat ikusteak eragiten duen beldurra, lan eta lan aritzearen nekea edota faltan botatako horren hutsunea betetzen duen lagunartea topatzearen poza...biltzen zuen giroa atondu zuen.

Pasarte bakoitzeko edukitik edo lerro artetik Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal beltsolarientzako gaiak atera zituen Alberdik, ateak itxita daudenean ere denda barruan jarraitzen zuten horien munduak asmatzeko. Hala, haurtzaroko etxeak nolakoak ziren gogoratu zituzten, baserrian bata, kultur etxetik gertu bestea; eta haren barruan anai-arrebarik izateak edo ez eragin ziena. Edo ile apaindegiko alabaren eta zapata dendako nes karen arteko topaketa irudikatu zuten, azkena inork jakin gabe, haren ohera berotasun bila joandakoan. Lekuz kanpoko usainek, egindako edo hala diruditen akatsek ere zer abestu eman zieten, besteak beste. Aipagarria, adibidez, 2050ean desagertzearen ohitura gorde duen azken pertsona, emakumezkoa, eta tradizioaren berri izan nahi duen antropologoaren arteko elkarriketa saiakera.



Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal bertsoariak Uxue Alberdiren liburuan oinarritutako gaiak izan zituzten bertsoarako oinarri. TXINTXARRI



Aitor Novak pasartearen irakurketa lagundu zuen soinu eta musikarekin. TXINTXARRI



Sari banaketaren amaieran, Ostadarreko aurtengo jatorrenek elkarrekin egin zuten talde argazki bat. TXINTXARRI

# Denboraldiari ohiko agurra

Oriarte BHI Landaberrin egin du Ostadar SKTk denboraldi amaierako jaialdia maiatzeko azken larunbat goizean. Taldeek euren sariak banatu dituzte, Kirolari Onenarena Nahia Zudaire igerilariak eraman du etxera, Auzolan saria, aldiz, Izan Iñurri egitasmoak jaso du

## Maitane Aldanondo

Nola esango dio agur kirol talde batek denboraldiari kirola egiten ez bada? Ostadar SKTk duela urte batzuk topatu zuen horretarako modu aproposa. Eta funtzionatzen badu zertarako aldatu. Pandemiak ospakizuna alboratzera behartu ditu azken bi urteetan, baina oraingoan ohikora bueltatu dira. Hala, elkarrekin ospatu dituzte hilabeteotan egindako ahalegina eta lortutako garaipenak.

Maiatzaren 27an Oriarte BHI Landaberriko jolastoki estalian hitzordua zuten klubaren kide eta ingurukoek. 11:00etan hasita, zenbait txokotan banatuta zeuden jolas inklusiboetan aritzeko aukera izan zuten bertaratutako haurrek eta gaztetxoek. Begiak estalita, gola sartzen saiatu ziren batzuk, gurpildun aulkian eslalomak egin zituzten beste batzuek, errugbiko baloia lapurtu nahian aritu ziren iskinetako batean, zaku lasterketan, lokotxetan edo lasterka ibili arren, hiruko marran jokatzeko duten gaitasuna probatzen... Hasieratik, guztietan bazen norbait, eta batetik

bestera zebiltzanen artean, hizketan edo begira zeudenak ere ezin ziren falta izan.

Sari banaketako ordua gerturatu ahala, bertaratzen joan ziren Ostadarreko kirolari, entrenatzaile eta lagunak. 12:30ean zuen hasiera ordua, baina hura baino lehentxeago eman zioten bere saria Infantil 1 mailako Beñat Murillori, izan ere, bere taldeak Kopako partida jokatu behar baitzuen 14:00etan, eta zain gelditzerik ez zuen.

## Urdin-beltz jatorrenak

Heldu zen ordua eta Aitor Azkonobieta prest zegoen, mikroa eskuan, kategoria bakoitzeko irabazlea aurkezteko. Kirolariekin hasi aurretik, ordea, bi sari bereziak eman zituzten. Auzolan Saria Izan Iñurri egitasmoak jasotzea erabaki dute Ostadarreko kideek "aho batez". Oroigarria Elena Gineak hartu zuen, pozik eta hunkituta, hitz egiteko gai ez zela, nahiz eta mikroa eskaini. Haren ondotik, Kirolari Onenaren Saria Nahia Zudaire Borrezo

Buruntzaldea IKTKo igerilariari eman zioten, txalo artean.

Eta orduan bai, jatorrenen txanda iritsi zen. Zerrenda ez zen laburra izan, sail eta talde asko baititu Ostadarrek, eta jende jator ugari ere, antza: 36. Taldeko bat, gutxienez. Atalez atal joan ziren haiek deitzen eta zenbait une berezi ere bizi izan ziren. Ipar Martxako kideek bastoiekin arkua egin zioten Kontxi Nogesi. Kide beterrano horri aitortu nahi izan zioten aintzatespen horrekin bere inplikazioa. Txapeldun edo txapeldunorde izandako taldeetako jokalariek ere deitu zituzten talde argazkiak egitera beraien kategoriako sariaren ondoren; baita aurrerantzean egongo ez direnak omendu ere. Saskibaloiko Senior nesken taldea osatu duten Itxaso Mercero, Uxue Anabitarte, Leire Belartieta, Maialen Sevillano eta Elene Arrutiri edo futbol preferenteko entrenatzaile aritu den Unai Iribarri Ostadarren igarotako urteengatik, opari gisa, beraien izena duen kamiseta urdin-beltz bat oparitu zieten.



Izan Iñurri egitasmoari eman diote "aho batez" aurtengo Auzolan saria. TXINTXARRI



Kirolari Onenaren saria Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek jaso zuen, pozik. TXINTXARRI



Nekatu arte jolasean aritzeko aukera izan zuten sari banaketa arteko tartean. TXINTXARRI



Festa amaieran zer jana ere izan zen errugbi taldeko kideei esker. TXINTXARRI





Elena Ginea (ezkerrean) eta Julene Illarramendi (eskuinean) "pozik" daude Ostadar SKTren aitortzarekin eta egiten ari diren lanarekin. TXINTXARRI

# Inurri lana saritu, tabuak aireratu

Ostadar SKTren Auzolan Saria jaso du Izan Inurri elkarteak. "Ohore handia" izan da aitortza elkarte kideentzat, eta bertan bizitakoen berri eman diote TXINTXARRI-ri. Horrekin batera, 'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio musikatu ere hitz egin dute

## Maddi Zaldua

Berezia izan zen maiatzaren 28a Izan Inurri elkartearentzat, Ostadar SKTren denboraldi amaierako festan Auzolan Saria jaso baitzuen. "Zirraragarria" izan da bi arrazoi nagusigatik; batetik, orain arte saririk jaso ez zuelako, eta, bestetik, berriz, herriko elkarte batek egindako aitortza izateagatik. Une hunkigarriak bizi izan zituen Elena Ginea Izan Inurriko kideak. Bera izan zen saria jasotzera joandako inurritxo, eta han bizitakoen berri eman dio TXINTXARRI-ri, Julene Illarramendirekin batera. Aintzatespenaz gain, azken aldian oholtzaz oholtza darabilten proiektuaz ere hitz egin diote aldizkariari.

Oraindik ere saria jaso izanaren ilusioarekin hitz egin diote kazetariari. Nabarmendu dute

"izugarria" izan zela, eta inondik inora ez zutela halako aitortzarik espero: "Gugan pentsatu dute, eta Auzolan saria eman digute. Hori gara gu, auzoa, herria, elkarlanean eta zaintzan oinarrituta ari garen talde eder bat". Gogoan ditu Ginea bizitako uneak: "Hain nengoen hunkituta, ezen antolatzaileek mikroa eman zidatean, hitz egiteko gai ere ez nintzela izan; ohorea izan da". Azaldu du "bultzada handia" eman diola taldeari: "Egiten dugun lana aitortu dute, eta horrek, ari garenekin jarraitzeko indarra eman digu".

**"ARI GARENAREKIN JARRAITZEKO INDARRA EMAN DIGU OSTADAR SKT-REN SARIAK"**

Kirol taldeari eskerrak emateko ere baliatu dute bi protagonistek aldizkariarekin hitzordua: "Eurek gure lanarekin egin duten modu berean egin nahi dugu guk ere eurenarekin, jardun ederra egiten baitute. Besteak beste, kirol inklusiboaren alde ari dira lanean eta hizkuntzarekin duten konpromisoa ere txalotzekoa da".

## Isilpekoak aireratzeko

"Konturatu gabe" baina izugarri hedatu eta sendotu da duela hiru urte eratutako inurritegia. Gaixotasuna baino, pertsonak (gaixoak eta zaintzaileak) erdigunean jarritz, orain arteko lanak bazter utzi gabe, ekimen berri batekin ari da buru-belarri lanean Izan Inurri urtarrilaz geroztik; *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saio musikatuarekin. Hain zuzen ere, uste baitute ezinbestekoa dela, eritasunaz isilpean

gordetakoak aireratzea: "Soilik horrela lortuko dugu gaitza modu normalean bizitzea".

Ane Labaka bertsolari lasarteoriatarren eskutik jarri zuten martxan ekimena: "Elkarteari bere ekarpena egin nahi zion, eta bertsolariaren bitartez egitea proposatu zigun". Ideia bikaina irudituz zitzaien, eta erabaki zuten lau emakumezko bertsolari (saioro ezberdinak izaten dira) ariko zirela taulagainean, bi musikarik lagunduta. Gai jartzaile lanetan beti dabil Amaia Agirre. Berak lantzen ditu gaiak mikro aurrean jakinarazi aurretik, baina, ez ditu huts-hutsetik berak sortzen, minbizia duten elkarte emakumeekin adosten ditu. "Gure bizipenak, anekdotak, minak, beldurrak, doluak, azken agurrak eta bestelako kontuak proposatzen dizkiogu kanturako gai gisa", azaldu du Ginea. Jakin badakite ez direla gai samurrak, baina, bertsolariak eta ikusleak eroso sentitzeko ahalegina egiten dute: "Une hunkigarri bezain gordinak sortzen ditu saioak, baina horiek umorez jantzen ere saiatzen gara".

Lau emanaldi egin dituzte dagoeneko. Doka kafe antzokikoa izan zen lehena, urtarrilaren 30ekoa eta "sekulako arrakasta" izan zuen. Sarrerak zazpi minutuan agortu ziren, eta 200 baino gehiago geratu zen aretora sartu ezinik. "Ezin genuen sinetsi. Suposa genezake arrakastatsua izango zela, baina inondik inora ez genuen imajinatu berehalako erantzun hura, ezta han bizitakoa biziko genuenik ere. Hitzetara ekartzea zaila da oso, bizi egin behar da".

Arrakasta ikusirik, bigarren saio bat egin zuten. Asteasun izan zen hori eta horren atzetik etorri ziren hirugarrena (Erreterian) eta laugarrena (Aginagan). Azarora bitarte izango dira gehiago, baina lasterrena herrian bertan, Manuel Lekuonako oholtzan. Datorren igandean, hilaren 12an egingo dute, 18:00etan eta Jone Uria, Onintza Enbeita, Oihana Bartra eta Maider Arregi bertsolariak, Ixak Arruti eta Gari Otamendi musikariak, eta Amaia Agirre gai-jartzailea ariko dira jendaurrean. Horiekin batera,

**HERRITARREK KONTZIENTZIA HARTU ETA HILAREN 12KO SAIORA JOAN DAITEZEN NAHI DUTE**

Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak hartuko dute parte, azken horien eskuzabaltasunari esker egin ahal izango baitute saioa kultur etxean (Kukuka antzerki eta dantza aste bete-betean izango da). "Pozarren" daude Illarramendi eta Ginea emanaldia herrian taularatuko delako, eta orain artekoak bezala, "mimo handiz" landutakoa izango dela iragarri dute. Sarrerak ondoko estekan erosi daitezke: <https://www.izaninurri.com/product-page/dohaintza-tabuen-kutxatik-oholtzara>. Beste zenbait udalerrietakoak ez bezala, Lasarte-Oriakoa inolako dirulaguntzarik gabe finantzatu beharko dute, eta horregatik, dei egin diete herritarrei kontzientzia hartu eta bertara daitezten. Adin guztietako ikusleak joatea desira dute, baina, batez ere gazteak erakarri nahi dituzte. Orain artekoek "sekulako harrera" izan dute, eta herrikoari ere halakoa egitea espero dute.

Bertso saio batean gerta litekeena aurreikustea ia ezinezkoa bada ere, ziurtatu dute "emozioz beteriko emanaldia" izango dela, "hustu eta betetzekoa". Horrela gertatu zaie behintza orain artekoetan bi protagonistei: "Bertso saioen ondoren, bi eguneko aje emozionala izaten dugu. Izugarri ikasten ari gara". Ikus-entzuleen hainbat feedback ere kontaktu dituzte: "Pedagogikoa dela esaten digute, eta terapia egiten laguntzen diola esan digunik ere bada. Korapiloak askatzeko lagungarria izaten ari dela uste dugu, eta hala bada, gu poz-poz, hori baita lortu nahi duguna".

Ezin amaitu genezake artikulu hau, gutxienez, emanaldiaren amaieraren azaleko erreferentziarik egin gabe; ezohikoa bezainbeste, errealitatearekin pare pare jartzen zaitu. Ez dugu informazio gehiegirik aurreratuko, ederrena zuzenean ikustea baita, baina... protagonistak oholtzan, minaren eta biziaren orbainak aurrez aurre, eta guzti horrekin batera, gorputz "ez normatiboen" aldeko aldarria, bozgorailuek Rigoberta Bandini Kataluniako abeslariaren *Ay Mama* abestia aireratzeko bitartean. Taulagaina errebindikaziorako bide hartuta; aukera bakarra ez delako minbiziaren ondorioz galdutako titia berregitea; emakume batek bi bular eduki behar izatea nahitaezkoa ez den bezala.

Nola askatu korapiloak, horiei begiratu, eutsi eta saiatuz ez bada?

# Eguzki, Udaberri torneoko txapeldun

Gazteen taldeak Aldapeta C izan du aurkari Udaberri Torneoko finalean eta 7-3 irabazi die donostiarrei. Partida eta garaipen berezia izan da herritarrentzat. Hiru urteko zikloaren ostean, hurrengo denboraldian seniorretan izango dira jokalariek

## Txintxarri

Liga zazpigarren postuan amaitu ostean, arantzatxoa kendu du Eguzki Areto Futboleko Gazteen mailako taldeak; Udaberri torneoko txapeldun da. Francisco Javier Kixki Perezek zuzendutako jokalariek Aldapeta C garaitu zuten, 7-3.

Prestatzaileak azaldu modura, "neurketa irabazteko aukerak genituen. Donostiako taldea ezaguna genuen. Torneoa prestatzen lagunarteko bat jokatu genuen. Horregatik bagenekien partida serioa egin behar genuela irabazteko eta horrela izan zen".

Jokalariek erakutsitako heldutasuna izan da gako Perezen ustetan. "Pazientziak jokatu eta erabakiak ongi hartu zituzten. Horri esker, nagusi izan ginen".

Defentsa lan ona eginez, partida osoan aurretik joan zen Perezen taldea. 20 iritsi ziren atsedendira. Bigarren zatia hasi bezain pronto hirugarrena egin zuen talde berde-horiak eta partida amaitzeko minutu baten faltan 3-5ekoa zegoen markagailuan. Aurkaria arriskatu eta Eguzkik beste bi gol egin zituen.

Prestatzailea pozarren dago jokalariek egindako lanarekin. "Torneoa irabazteak balio handia du, ligan jokatu duten talde guztiak parte hartu dute. Eta



Finaleko momentuetako bat. TXINTXARRI

ligan garaitu gaituzten taldeak, orain erraz menderatu ditugu".

Eta taldeak Ligako bigarren zatian egindako lana azpimarratu du. "Gazteen meritua izan da. Urteak daramatzate elkarrekin lanean eta hori nabari da. Urte zaila izan da. Gabonen ostean, ligan arazoak izan genituen: berrogeialdiak, atezainaren osasun arazoak eta taldea uztea... Beraz sistema aldatu behar izan genuen. Eta lan horrek orain fruitu eman du".

## Zikloaren amaiera

Neurketa eta garaipena ere jokolarientzat bereziak izan direla nabarmendu du gazteen mailako

prestatzaileak. "Taldearen Gazteen mailako azken partida izan da. Orain seniorretara joango dira eta batzuek areto futbola utziko dute. Hiru urteko zikloa izan da egin duguna. Asko kadeteetatik elkarrekin egon dira eta orain banatuko dira. Bukatzeko modurik onena garaipena izan da".

Beraz, taldea desegingo da. Perezek, berriz, Gazteen mailan lanean jarraitzeko esperantza du: "Kadeteetatik datozen gaztetxoak hartuko nituzke. Baina izen emateak ere ikusi behar dira. Oraindik guztia airean dago".

## Ate irekiak

Izan ere, hurrengo denboraldiari begira lanean hasi baita Eguzki Areto Futbol taldea. Ekainean zehar entrenamendu irekiak egingo ditu. 2013 urtean edo lehenago jaiotako haur, gazte eta helduek saioetan proba egin dezakete.

Entrenamenduen egunak eta orduak jakiteko eguzkiaretofutbola@outlook.com edo 699 42 02 39 zenbakira deitu behar dute interesatuek.

Era berean, taldeen parte izan nahi dutenei zuzendutako aurretiko izen emate epea ere ireki du kirol elkarteak. Aipatu helbide elektronikoko edo telefono zenbakietan egin daiteke inskripzioa.

ditu; Korrika festak, berriz, 20. Horregatik, "aurtengo edizioa berezia izango da" aurreratu dute antolatzaileek; sorpresak ere iragarri dituzte, "behar den momentuan jakinaraziko ditugunak".

## Izen ematea

Sareko izen ematea irailean zabalduko dela jakinarazi dute. Presentzialki egin nahi dutenek ere izango dute aukera, urriaren 17ko astean, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

## Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia itzuliko da urriaren 30ean

Urte berezia izango da lasterketak 25 urte beteko ditu eta Korrika festak, berriz, 20. Ezustekoak izango dira

## Txintxarri

Bi urteko itxaronaldiaren ostean, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia zilarrezko ezteiak ospatuko ditu.

Ostadar SKTko ordezkariak jakitera eman dutenez, urriaren 30ean itzuliko da berritua lasterketa

herrikoia, baita Korrika Festaren XX. edizioa ere.

Herriko kaleak korrikalariz, patinatzailez zein ipar martxako kirolariz beteko dira beste behin.

Ez da urte arrunta izango: kros herrikoia 25 urte beteko

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

INFANTIL TXIKI PARTE HARTZEA

Ostadar SKT - Euskalduna SD  
Larunbata, 09:00. Harane, Usurbilen.

### PILOTA

JUBENILA 2. MAILA, FINAL LAURDENA

Zazpi iturri - Intza (Urdanpilleta)  
Larunbata, 10:30. Larrunari, Amezketa.

JUBENILA 2. MAILA, EKIALDEKO TX.

Intza (Diaz de Gereñu) - Añorga  
Larunbata, 16:15. Loidibarren pilotalekuan.

### GIMNASTIKA

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko kadete mailako gimnastek Euskadiko Amateur txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata, Landako kiroldegia, Durangon.

### GETXOKO TORNEOA

LOKEko gimnastek Getxoko Torneon parte hartuko dute.

Igandea, Fadura kiroldegia, Getxon.

### JUDO

TAGUYA KOPA

LOKEko infantil eta kadete mailako judoek talde mistoen Tagoya kopa lehiatuko dute.

Larunbata, Hernanin.

### ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar Atletismoa saileko kideek 16 urte zazpiko Gipuzkoako txapelketa

parte hartuko dute. Proba libreetako saioak ere izango dira.

Larunbata. Kote Olaizola miniestadioa, Donostian.

### EUSKADIKO TXAPELKETA

Herriko atletak Euskadiko txapelketa lehiatuko dira.

Larunbata eta igandea. Durangon.

### IGERIKETA

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek igeriketa egokituko Euskal Herriko txapelketa parte hartuko du.

Larunbata, Paco Yoldi kir., Donostian.

### OPEN SARIA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak B zirkuituko Gipuzkoako Udako Sarian parte hartuko dute.

Larunbata, Allurralde kir., Andoainen.

### OPEN SARIA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak A zirkuituko Gipuzkoa Open Sarian parte hartuko dute.

Larunbata eta igandea. Paco Yoldi kir., Donostian.

### ERRUGBIA

IZAR BELTZAK OROIMENEZKOA

Beltzak RTko kideek Izar Beltzak oroimenezkoa antolatuko dute. Errugbi Eskolako denboraldiari agurra eta partidak izango dira

Larunbata, Michelin kirol gunean.



Ostadar eta Kostkaseko jokalariek partida amaitzean. GIPIZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

## Penaltietan erabaki da Ohorezko Kadete Mailako kopa irabazlea

Ostadar SKT taldeak bina berdindu du Kostkasen aurka. Penaltietan donostiarrek gailendu dira eta saria eskuratu dute

## Txintxarri

Ostadar SKTko Ohorezko Kadete Mailako taldeak Kopako finala jokatu zuen Kostkasen aurka Berion, Donostian. Partida zirrarragarria izan zen. Binako berdinetarekin amaitu eta penaltietan erabaki zen garailea.

Aurkari zaila zuen talde urdin-beltzak aurrean. Hala ere, Ostadarrek kadeteak gogotsu atera ziren zelaira. Igor Astiazaran prestatzaileak aipatu modura, "finala denboraldi osoan egindako ahalegin guztiaren saria zen".

Aukera ugari sortu zituen Ostadarrek eta gola ere egin zuen. "Nola jokatu eta nola min egin

jakin genuen. Denboraldi osoko lehen zatirik onena izan zen", adierazi du entrenatzaileak.

Bigarren zatia, ordea, gaizki hasi zen eta Kostkasek bi gol egin zituen. Astiazaranen taldeak partida berdintzeko ahalegina egin eta taldea animatzera joan ziren zaletuen laguntzaz, azken minutuetan lortu zuen saria.

Penaltietan, berriz, zorte txarra izan zuen Lasarte-Oriako taldeak eta Kostkas gailendu zen.

Nahiz eta finala ez irabazi, prestatzailea harro dago jokalarien egindako finalarekin eta eskerrak eman nahi dizkie Beriora joan ziren zaletuei.



Ostadar SKTko Enara Gonzalez, Oihana Igariz, Maider Rekondo, Nahia Surutusa eta 4x100 erreleboa igo ziren podiumera. OSTADAR ATLETISMOA

## Gipuzkoako txapelketako lehen postuetan

Domina eta markak pilatzen doaz Lasarte-Oriako atletak, eta denboraldia hasi besterik ez da batzuentzat. Zazpi domina jantzi dituzte maila absolutuko Gipuzkoako txapelketan; Euskadiko Eskolarteko Jokoetan Lucia Miñosek bosgarren postua eskuratu du

### Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak hitzordu bikoitza izan zuten maiatzaren 28 eta 29ko asteburuan. Maila absolutuko Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren gehienak eta hainbat domina jantzi zituzten; Euskadiko Eskolarteko Jokoetan ere izan zen ordezkaririk.

Gipuzkoako txapelketan Ostadar SKTko hamabost kide baino gehiagok parte hartu zuten eta guztira sei domina batu zituzten -urrezko lau eta zilarrezko zein brontzezko bana- eta Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek ere zilarrezkoa jantzi zuen, 100 m. lasterketan.

Enara Gonzalez izan zen podiumera igotzen lehena. Luzera jauzian, bigarren ahalegina egin eta gero jarri zen lehen postuan, eta hirugarren eta laugarren saiakeran egindako 5,65 metroek urrezko domina eman zioten.

Nahia Surutusak lortu zuen bigarren domina, 7,57 metrora

jaurti zuen lau kiloko pisua herritarrak, eta brontzezko domina eskuratu zuen.

Disko jaurtiketako lehen bi postuak ere lortu zituzten talde urdin-beltzeko kide Maider Rekondo (43,16 m.) eta Oihana Igarizek (32,50 m.). Rekondo nagusi izan zen proba hasi zenetik 42,02 metroko jaurtiketari esker.

Naroa Furundarenak lortu zuen hirugarren urrezko domina jauzi hirukoitzean. Furundarena bigarren saiakeran 12,43 metrora iritsi zen, eta marka horrek podiumeko lehen mailara eraman zuen.

Ostadarreko 4x100 m. erreleboko mutilen taldea izan zen podiumera igotzen azkena. Alex Alkain, Unax Riezu, Oinatz Almagro eta Aitor Surutusa lauokak 47.70eko denbora egin zuen finalean, Super Amara BAT eta Atletico San Sebastian garaituz.

Iraia Alkortaren 100 metro lasterketako marka ere nabarmendu nahi izan dute Ostadarreko arduradunek. Alkorta 16 urte azpiko Espainiako txapelketako gutxienekotik gertu geratu da, 12,85 egin ostean.

### Zilarrezko domina

Ostadarreko kideez gain, beste herritarrik ere izan zen lehiaketan. Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz, Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi edo Bidasoa Atletiko taldeko Unax Goenagak ere proba ezberdinak jokatu zituzten.

Veronizek lortu zuen hiruetatik posturik onena. 100 metro lasterketako finalerdian hirugarren denbora onenarekin sailkatu zen finalera Real Sociedad taldeko kidea, 10.87. Finalean, berriz, 10.89 eginez bigarren postua eskuratu zuen herritarrak.

Eugik ere 100 metro lasterketan parte hartu zuen. Finalaurrekoan 12,64ko denbora egin eta gutxigatik ezin izan zen finalerako sailkatu. Azkenik, Goenaga 200 metro lasterketako bigarren finalean lehiatu zen eta 02.05,96 denbora egin zuen.

### Eskolarteko Jokoak

Bestalde, Euskadiko Eskolarteko Jokoak antolatu ziren maiatzaren 28an, Gasteizen.

Gipuzkoako selekzioak jauzi hirukoitza proban lehiatzeko, Oihane Belartietak deitu bazuen ere gazteak ezin izan zuten parte hartu eta taldekide Lucia Miños joan zen bere lekuan.

Ederki lehiatu zen eta laugarren saiakeran 8,74 metroko jauziarekin bosgarren postua eskuratu zuen.

Alabaina, ez dira lehiaketak amaitu. Ekainaren 4 eta 5eko asteburuan herriko atletak maila absolutuko Euskadiko txapelketa lehiatuko dute Durangon.

Donostiako Kote Olaizola miniestadioan, berriz, 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia eta proba libreak jokatu dira.

## LOKEko judokak, bikain alebin mailako Gipuzkoako txapelketan

LOKEko gaztetxoak euren mailako podiumetara igo dira. Alebin txikiak ere lehen postuetan izan dira

### Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judo saileko alebin eta alebin mailako txikiak Gipuzkoa mailako txapelketa garrantzitsuei aurre egin behar izan zieten maiatzaren 28an eta 29an.

Maiatzaren 29an, alebin mailako judokak bildu ziren Errenterian. LOKEk lau ordezkaririk izan zituen: Sofia Pozo, Unai Curiel, Adriano eta Marcos Antolin. Lauek lortu zuten podiumera igo eta domina jantzea (urrezko domina bat eta hiru brontzezko).

Alebin txikiak, berriz, egun bat lehenago Gipuzkoako Kopa lehiatu zuten leku berean. Iago Izquierdo, Maria Escribano, Ariane Luis, Ariana Mendoza, Enaitz Serrano, Naroa Miera eta Jon Bravo izan ziren LOKEko ordezkaririk eta euren mailako lehen hiru postuetan sailkatu ziren.

LOKEko prestatzaile Gorka Aristegi pozarren dago guztiek lehiaketetan egindako lanarekin.

### Taldeko Kopa mistoa

Bestetik, maiatzaren 15ean, Haritz Urdangarin Larrañaga



Alebin eta Alebin Txiki mailako judoketako batzuk eskuratutako domina eta sariekin. LOKE JUDO

judokak talde mistoen senior mailako 1. Kopan parte hartu zuen, Binefarren.

Euskadiko Selekzioarekin lehiatu zen gaztea 1. mailako multzoan, Huesca La Magia eta Madrileko bi talderen aurka.

Laugarren postua eskuratu zuen taldeak.

### Hurrengo hitzorduak

Eta talde mistoen txapelketekin jarraiki, LOKEko kadete eta infantilek hilaren 4an, Tagoya

Kopako txapelketa izango dute Hernanin.

Horrez gain, hilaren 19an, maila guztietako judoek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute, 10:00etan, Maialen Chourraut kiroldegian.



Mirian Prieto, ezkerreko irudian urdinez, eta Sarmiento, eskuineko argazkian lehen mailan, podiumera igo ziren. LOKE GIMNASTIKA

# Prieto eta Sarmiento, Euskadiko onenen artean

LOKEko gimnastak podiumera igo dira Euskadiko Amateur mailako txapelketan zein Euskadiko Eskolarteko Jokoetan. Urrezko, zilarrezko eta brontzezko domina bana eskuratu dute. Hilaren 4an eta 5ean, denboraldiko azken txapelketei egingo diete aurre herriko gimnastek

## Txintzarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) gimnastek Euskadi mailako gimnasta onenen aurka lehiatu dira bi txapelketetan. Amateur mailako senior eta jubencil gimnastak Euskadiko txapelketan izan dira lehiak; Maitane Sarmiento, aldiz, Euskadiko Eskolarteko Jokoetan parte hartu du.

Mirian Prieto, Paula Martinez eta Garazi Gomez gimnastak maiatzaren 29an Durangoko Landako kiroldegian antolatutako Amateur mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren. Gipuzkoako txapeldun den Prietok lortu zuen emaitzarik onena Jubencil A mailan, Euskadiko hirugarren izan zen.

Bitan igo zen podiumera gaztea. Pilotako bigarren postua lortu baitzuen LOKEko gimnastak. Mazo lanetan, berriz, seigarren izan zen.

## Sarmientok ere domina

Maitane Sarmientok eman zuen ezustekoa Gasteizko Abetxuko kiroldegian jokatu zen Euskadiko Eskolarteko Jokoetako proban. Gazteak urrezko domina jantzi zuen pilota lanari esker.

Sarmiento Infantil B mailan lehiatu da Gipuzkoa mailan eta Euskadiko lehiaketan A mailako gimnastekin egon da borrokan.

Uztai lanean bederatzigarren postuan sailkatu zen eta sailkapen orokorrean laugarren izan zen,

bigarren eta hirugarren sailkatuekin puntuetan berdinduta.

LOKEko prestatzaileak pozarren daude gazteak lortutako emaitzekin eta denboraldian zehar egindako lanarekin. "Izugarria izan da. Maila altuagoko kirolarien aurka lehiatu da eta gainera, lehen postua eskuratu du pilota lanean. Langilea da eta horrek bere fruitua eman du".

## Hitzorduak

Hilaren 4an eta 5ean txapelketei amaiera emango diete gimnastek. Amateur mailako kadeteen Euskadiko txapelketan zein Getxoko Torneoan parte hartuko dute LOKEko ordezkariak.

Ollokiegi herritarra (06.04.10) izan ziren.

Bestalde, maiatzaren 28an, Gavin, Huescan Crestas del Infierno proban lehiatu zen LOTMEko Ines Aguado. 42 kilometroko ibilbidea 07.03.05 denboran egin zuen. Emakumezkoen mailako hirugarren postua eta beterano mailako bigarrena eskuratu zituen.

Hondarribiko 10K proban ere izan zen herritarrik: lehen hamarren artean sailkatu zen Jon Presa, 33.02 denborarekin.

## Lasarte-Oriako hiru ordezkari izan dira Zegama-Aizkorri

Hondarribiko 10K eta Crestas del Infierno probatan ere izan dira herriko ordezkariak lehiak

## Txintzarri

Zegama-Aizkorri berezia izan da aurtengoa. Eguraldi ederra izan zuten parte hartzaileek 42,195 kilometroko bidea egiteko, eta zaletuen animoak ere jaso zituzten puntu esanguratsuenetan. Ondorioz, errekorra hautsi zuten

lehen postuan sailkatu ziren Kilian Jornet katalana eta Nienke Brinkman nederlandarra.

Helmugara iritsi ziren korrikalarien artean, Lasarte-Oria Trail elkarte Ricardo Marcos (06.23.27) eta Juan Luis de la Mata (06.32.11) zein Julen

## Buruntzaldea IKTko gaztetxoek, marka eta gutxieneko berriak

Igeriket taldeak Lasarte Sariko domin eta oparien gastuei aurre egiteko diru bilketa jarri du martxan

## Txintzarri

Maiatzaren 28an, Buruntzaldea IKTko igerilariak markak eta Udako txapelketarako gutxieneko berriak lortu zituzten bi lehiaketetan.

Gipuzkoako trofeoaren B zirkuituko bigarren jardunaldia jokatu zen Ordizia Sarian. Izaro Audikana, Saioa Elola, Alba Escribano, Iker Gorostegui, June Lopez eta Jurgi Sukunza taldekideak lehiatu ziren eta guztira hamabi marka ondu zituzten:

- Alba Escribano; 100 m. libre, 01.09,79.
- Jurgi Sukunza; 100 m. bizkar, 01.11,36.
- Izaro Audikana; 50 m. bular 38,94; 200 m. lau estilo, 02.39,55 eta 50 m. tximeleta, 35,96.
- Saioa Elola; 50 m. libre, 30,49; 200 m. lau estilo, 02.51,22 eta 50 m. tximeleta, 35,95.
- Iker Gorostegui; 50 m. tximeleta, 30,49 eta 200 m. libre, 02.09,59.
- June Lopez; 50 m. libre, 29,87 eta 200 m. bizkar, 02.34,46.

Eta Euskal Herriko txapelketarako hiru marka berri eskuratu zituzten gazteak. Iker Gorostegui 200 m. libre proban egindako denborari esker Infantil mailako txapelketan izango da uztailaren 9an eta 10ean Galdakaon.

June Lopezek eta Izaro Audikanak, berriz, uztailaren 2an eta 3an antolatuko den junior eta absolutu mailakoan izango dira 50 m. libre eta 200 m. lau estilo probetan, hurrenez hurren, taldeko beste kide batzuekin batera.

## Eskolartekoan ere bikain

Bestalde, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak lehiatu ziren Gasteizko Mendizorrotzako igerilekuan eta Gipuzkoako Selektzioaren parte izan ziren Buruntzaldea IKTko 11 igerilari: Oihan Matute, Saray Lobato, Amaior Iparragirre, Nora Miguelez, Iñaki García, Ibon Elola, Ane Meyer, Hodei Barcina, Mayi Gorostegui, Irati Etxeberria eta Mario Amantegi.

Udako txapelketako gutxieneko markak buruan, lehiatu ziren



Gasteizen lehiatu ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

igerilari gazteak. Marka berri ugari egin eta domina bat ere eskuratu zuten.

Mario Amantegik 400 m. estilo probako hirugarren postua eskuratu zuen. 6.05,64 denbora eginez gainera, Alebin mailako Euskal Herriko Txapelketako marka gutxienekotik gertu egon zen. Mayi Gorostegui, berriz, helburua bete zuen eta Gipuzkoako Udako Txapelketarako gutxienekoa eskuratu zuen 200 m. lau estilo proban, 03.11,07.

## Diru-bilketa

Buruntzaldea IKTko kideek 31. Lasarte Saria antolatuko dute ekainaren 11n.

Aurten lehen aldiz bi jardunaldi ezberdin izango dituzte. Lehen saioan benjaminen denboraldi amaiera egingo dute. Bestean, berriz, alebin, infantil, junior eta absolutuen mailako lehiaketa izango da.

Guztiei eta batez ere txikienei dominak, garaikurrak eta opariak eman ahal izateko diru-bilketa abiatu dute honako helbidean: <https://www.apontoque.com/es/proyecto/4841/xxi-trofeo-lasarte/> Bertan proiektuaren helburua eta nondik norakoak azaltzen ditu kirol elkarteak. Bi eurotik 50 eurora arteko ekarpenak egin daitezke eta zenbatekoaren arabera, oparia jasoko dute laguntzaileek.

Hilaren 9a arte izango da aukera Igeriketa taldeari laguntza emateko.

# Beltzak RTren sortzaileen oroimenezko txapelketa

Izar Beltzak oroimenezkoa jokatuko da ekainaren 4an Michelin kirol gunean. Errugbi eskolako haurren jardunaldi berezia eta emakumezko zein gizonezko neurketak izango dira. Pedro Montoya epailearen lanari ere aitortza egingo diote ekimenean

## Txintxarri

Beltzak Rugby taldeak Izar Beltzak oroimenezkoa aurkeztu du. Hilaren 4an, Michelin kirol gunean errugbia izango da nagusi. "Aitor Uranga oroimenezkoa zena, Izar Beltzak oroimenezkoa bihurtu da. Gure taldearen sorreran zerikusia zuten beste kide batzuk ere zendu dira eta haien omenez Izar Beltzak izena jarri diogu txapelketari", azaldu dute errugbi taldeko kideek.

## Egitaraua

Eskolako haur eta gaztetxoek emango diote hasiera jardunaldiari. Jolasak egin eta guraso eta gaztetxoaren arteko partida jokatuko dute.

Eguerdian errugbi neurketak hasiko dira. Cominter Tisu Hernanik Getxoko eta Eibarreko jokalariek osatutako talde bat izango du aurrez aurre. 16:00etan, aldiz, Beltzak Lasarteorians eta Atletico San Sebastian taldeen arteko norgehiagoka izango da.



Beltzak RT taldeko kideak eta oroigarrien egilea, aurkezpenean. TXINTXARRI

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Beltzak Lasarteorians taldean Lasarte-Oriako zein herriko taldearekin lotura duten jokalariek parte hartuko dute.

Partida bakoitzaren ostean, hirugarren denbora eta oroigarri banaketa izango da. Gainera, azken partidaren epaile izango den Pedro

Montoyaren lanari aitortza egingo diote.

"Montoya Ohorezko Mailako epaile da eta erretiroa hartuko du aurki. Epaile eta epaileen irakasle lanetan egin dituen urte guztiengatik oroigarritxo bat eman nahi diogu", jakitera eman dute.

## Urdanpilletak aurrera egin du Lau eta Erdiko txapelketan

Batean bale, bestean kale. Intzako pilotariek emaitza ezberdinak lortu dituzte; Olazabal lehiatik kanpo geratu da

## Txintxarri

Intzako Beñat Olazabalek eta Peru Urdanpilletak Lau eta Erdiko txapelketako final zortzirenak jokatu zituzten maiatzaren 28an eta emaitza ezberdinak lortu zituzten. Urdanpilletak bakarrik lortu final laurdenetara sailkatzea. Michelin kirol gunean jokatu zen Kadete 2. mailako lehia. Olazabalek Abantzuko Uria izan zuen aurrez aurre.

Nahiz eta 11-22ko emaitza adierazle ez izan, partida gogorra eta borrokatua izan zen. Tanto luzeak jokatu zituzten; tamalez,



Olazabal, kadete mailako partidaren. TXINTXARRI

puntuak Zestoako jokalaria alde izan ziren.

Emaitza aldeko ez izan arren, Intzako arduradun Jose Felix

Solanok Olazabalen txapelketa nabarmendu du: "Txapelketa ona egin du eta pena da horrela amaitzea".

Peru Urdanpilletak, ordea, finalerako bidea jarraituko du Jubenilen 2. Mailan. Oiartzunen Oiarpeko Iriarteren aurka jokatu zuen pilotari gazteak.

Neurketa gogorra izan zen herritararentzat, 10-2 galtzen hasi baitzen. Hala ere, ez zen kikildu eta bere jokoa eginez, emaitzari itzulia eman zion, 10-18. Azkeneko emaitza 14-22 izan zen.

Hilaren 5ean, berriz, Amezketa final-laurden zaila izango du Urdanpilletak Zazpi Iturriko Gorostidiren aurka.

Ekialdeko txapelketa hasiko du, aldiz, Haritza Diaz de Gereñuk. Loidi Barren pilotalekuan izango du hitzordua hilaren 4an, 16:15ean. Aurkaria Añorgako Oliden izango da.



Hernaniko jokalaria domin eta sariarekin. Paola Vega beheko ilaran, eskuinetik hasita laugarrena da. EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA

## Hernani, Euskal Ligako txapeldun

Maiatzaren 28an, Euskal Ligako finalak jokatu ziren Elorrioren. 1. mailako Cominter Tisu Hernani eta AVK Bera Beraren artekoan hain zuzen, Paola Vega herritarra izan zen lehian eta Ligako kopa jaso zuen Hernaniko taldekideekin batera.

Neurketa hasieran Donostiako taldeak 12-0 aurre hartu bazuen ere, hernaniarrek ez zuten amore eman. Borrokatuz metroak irabazi eta berdinketa lortu zuten, baita garaipena emango zien beste bi entsegu ere. Azken minutuetan defentsa lan ederra egin zuten bi taldeek eta 17-27 amaitu zen partida.

Bestalde, Alex Saleta herritarrek Aviron Bayonnais utzi eta maiatzaren 30ean, Saint Jean de Luz Olympique taldearekin sinatu du kontratua.

Egitarauaz gain, txapelketan banatuko diren oroigarriak ere erakutsi dituzte. Jonny Walesek egurrean egindako lanak dira guztiak.

Taldeei emango zaizkien opariez gain, sari bereziak ere izango dira. Lehena txapelketako irabazleak jasoko du eta urtez

urte, garaileen izena gehituko da atzeko aldean.

Bestetik, mele onenak, jokalaria jatorrenak eta jokalaria lehiakorrenak ere izango dute oparia. Horiek Beltzak RTren sorrera sustatu zuten Gotxoren, Aitor Urangaren eta Jesus Erroren izenak daramatzate.

## Eskola Kirola egitasmoko izen ematea hilaren 6an hasiko da

LH1 eta LH6 mailako haur eta gaztetxoek ederki eman diote amaiera ikasturteari Eskola Kirola Festan

## Txintxarri

Maiatzaren 28an, era paregabean amaitu zuten Eskola Kirola egitasmoko ikasturtea. Michelin kirol gunean LH1 eta LH6 maila arteko gaztetxoak bildu ziren. Jaialdiaren ostean, hurrengo ikasturtea prestatzen hasi dira Ttakun Kultur Elkarte zein Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko guraso elkarteak.

Urriaren 3an hasiko dela iragarri dute. LH1 eta LH2 mailako ikasleek Jolas Hezi programa garatuko dute, eta LH4tik eta LH6ra kirol ezberdinak landuko dituzte, hala

nola, saskibaloia, igeriketa, kirol egokitua, pilota, eta abar.

## Izen ematea

Ekainaren 6an hasiko dute izen emate epea bi ikastetxeetako guraso elkarteek. Landaberri ikastolako ikasleek *landaberrigeus* webgunean egin beharko dute inskripzioa. Azken eguna hilaren 21a izango da.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe matrikulazioa, berriz, gurasoei zabalduko zaien lotura baten bidez egin beharko da hilaren 30a baino lehen.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 3	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 4	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 5	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 6	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 7	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 8	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 9	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

**URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

<b>UDALAREN TELEFONOAK:</b>	<b>LARRIALDIKO TELEFONOAK:</b>
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84	DYA: 943-46 46 22
KIROLDEGIA: 943-37 61 82	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	ERTZAINZA: 943-53 88 40
KIUB: 943-36 16 05	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTERI AEK: 607 62 52 33	

## OHARRA

## Sorgin Dantzako entseguak

Bueltan dira San Pedro Jaiak, eta horien barruan, herritarren ekitaldi kuttunenetako bat, Sorgin Dantza. Ttakun Kultur Elkarteak iragarri duenez, entseguak datorren asteko asteartean hasiko dira, hilak 7, Okendo plazan, 20:00etatik 21:00etara. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberriko estalkira joango dira.

Hilaren 9an, 14an, 16an eta 21ean ere entseatuko dute, toki eta ordu berean. Sorgin Dantza, ohi bezala, 28an egingo dute, arratsaldean.


## Maiatzak 1eko pintxoak

Biyak Bat elkarteak jakinarazten du, kainaren 9an, 20:00etatik 22:00etara, maiatzaren 1ean egiteko zen pintxo banaketa egingo duela egoitzako tabernan. Maiatzaren 1eko data duen tiketa aurkeztu behar da.

## Ekainaren 23an sua piztu nahi dutenek Udal Erregistroan jakinarazi beharko dute

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du ekainaren 23an sutzarrak piztu nahi dituzten herritarrek Udal Erregistroa joan beharko dutela, horren berri ematera. "Segurtasun arrazoiengatik, hau guztia zehaztu beharko dute: sua non egingo den, harremanetarako pertsona nor den eta harekin kontaktuan nola jarri".

## KOMIKIA



Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.  
Deitu 943-37 14 48 telefonora,  
bidali hauraren izen-abizenak  
eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
helbide elektronikora edo  
688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

**API Inmolasarte**  
Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!  
943-53 64 81 | 629 63 18 38  
Iñigo de Loiola, 2 behea.  
LASARTE-ORIA  
[info@inmolasarte.com](mailto:info@inmolasarte.com)

## ETXEBIZITZA

**SALDU**  
Marina D'O'r urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro

ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldia eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukakutuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 30 06

## ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro karratuden lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

## PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste

bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argisua, handia da eta gela guztiak kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabilza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hila batean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663935176 (Iratzi).

## LANA

## ESKARIA

Goizetan zein arratsaldetan edozein adinetako umeak

zaintzeko, ikastolara eramateko edo bertatik jasotzeko, eta behar izanez gero beraien etxeko lanetan laguntzeko eskaintzen dut neure

burua. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.  
Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia.  
12 €  
(BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
646 82 44 66

Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketa lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nitzuzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Harremanetarako zenbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketetan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketetan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

## SALEROSKETA

**SALDU**  
Kymco people GTI motorra saltzen dut. 125 c.c., ondo zainduta eta azterketa tekniko pasata!! Iker 618 09 80 75.

## BESTELAKOAK

**HEZKUNTZA**  
Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein

adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko erreferentzia saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Babilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

## AURKITUAKOAK

Urrezko kate bat aurkitu nuen apirilaren 20an. Galdu duena jar dadila nirekin harremanetan: 626057411 (Maria)

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odrizola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide  
Hidalgo, Uxue Odrizola, Julene Iraola,  
Egoltz Epelde, Jose Lanchas  
eta Iñigo Garcia.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

## BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Zabaletako Jaiak.** Teresa Sorgiña Zabaleta auzora iritsi eta jaiak eztanda egingo du. Berrikuntza nagusia kokalekua izango da, Zabaleta auzoko pilotalekua. Ekintzaz betetako asteburua dago aurretik. Jokoak, kirola, lehiaketa, dantza, musika... izango da Zabaleta auzoko jaietan. Haur, gazte eta helduentzako ekintza ezberdinez gozatu ahalko da. Asteburu osoa, Zabaletako pilotalekua eta inguruak.

## OSTIRALA 3

Teresa sorgina auzora jaitsiko da.  
**18:00etan**, antzerkia Kukukaren eskutik, Basotxo plazan.  
**18:30ean**, Txokolatada.  
**18:30ean**, bingoa, Gazte Klubeko lagunak eskutik.  
**18:45ean**, Teresa sorginaren kalejira, Basotxotik frontoira.  
**19:00etan**, Teresa sorginari ongietorria: pregoia, Sorgin Dantza herrikoa eta Jalguneren emanaldia.  
**19:30ean**, *Gas gas* eta japoniar bonbak.  
**20:00etan**, bertsolariak. Ane Labaka, Miren Artetxe, Andoni Mujika eta Eñaut Martikorena.  
**21:00etan**, auzo afaria, norberak berea eramanda.  
**23:00etan**, Euskal Dantza Sorkuntza, Kukukaren eskutik.  
**00:00etatik aurrera**, Rock Gaua: Louh Music, The Noise Makers eta Erroka.

## LARUNBATA 4

Akelarreak sorginduko du auzoa.  
**09:00etan**, diana.  
**10:00etan**, futbol festa, adin guztientzat.  
**11:30ean**, buruhandi eta erraldoiak LOZET elkartearen eskutik, Kilker Band txarangarekin.  
**11:30ean**, Joxe Migel Aranzadiren omenezko XIII. eskoba txapelketa.  
**13:00ean**, bermut musikatu, El Graffiti eta lbey Beatbox-ekin.  
**15:30ean**, Joxe Migel Aranzadiren omenezko XIII. mus txapelketa.  
**17:00-20:30**, haurren festa: altxorraren bila eta zinta lasterketa (bizikleta ekartzea beharrezkoa da).  
**21:00etan**, afari herrikoa.  
**23:00etan**, akelarre dantza.  
**00:00etatik aurrera**, Musika Gaua: Ameba, Errietan eta DJ Fantasia.

## IGANDEA 5

Jarduera ugari prestatu dituzte aurtengo jaietako azken egunean, besteak beste, proba misto nagusia.  
**09:00etan**, diana.  
**11:00etan**, Kukuka eskolako ikasle gazteek Euskal Dantzak eta Sorkuntza emanaldiak egingo dituzte.  
**11:00etan**, patata tortilla txapelketa.  
**12:00etan**, Oaintxe in deu txarangak girotuko du goiza.  
**12:15ean**, pilota partidak: Hernani, Lasarte-Oriaren aurka.  
**13:15ean**, proba misto nagusia jokatu dute.  
**14:30ean**, bazkari herrikoa.  
**17:30ean**, kantu festa, Xumela koruko lagunak eskutik.  
**18:00etik 20:00etara**, erromeria, Bide Batez taldearekin.  
**18:30ean**, toka txapelketa.  
**20:30ean**, azken traka eta Teresa sorginari agurra.

## OSTIRALA 3

**LASARTE-ORIA Mobilizazioa**  
 Oriarte BHI institutuko guraso elkarteak, Oriartekidek, kontzentrazioa deitu du, datorren ikasturtean jardunaldi jarraituarekin segitzea eskatzeko.  
 Oriarte Landaberri, 14:10ean.

**LASARTE-ORIA Aste Berdea**  
 Birziklatzearen erronka egingo dute. Informazio gune bat jarriko dute Okendo plazan.  
 Okendo plaza, 16:00etatik 20:00etara.

**LASARTE-ORIA Emanaldia**  
 Udal Dantza Eskolako ikasleek ikasturte bukaerako emanaldiak egingo dituzte. Sarrera, doan.  
 Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

## LARUNBATA 4

**LASARTE-ORIA Aste Berdea**  
 Oria ibaiaren inguru garbituko dute, taldetan banatuta. Materiala Artelatzen enpresak ekarriko du.  
 Okendo plaza, 09:30ean.

## ASTELEHENA 6

**LASARTE-ORIA Desfilea**  
 20. Antzerki eta Dantza astea hasteko, desfile koloretsua egingo dute Kukuka eskolako lagunak.  
 Hipodromoa, 19:00etan.

## ASTEARTEA 7

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
 LH 5-6 mailako ikasleek funtzio ugari egingo dituzte: *Zer ari da gertatzen?*, *Arratsalde bateko abentura eta Nork pozoindu zuen Edumezuriren sagarra?*.  
 Kultur etxea, 10:30ean eta 19:30ean.

**LASARTE-ORIA Sorgin Dantza**  
 Ekainaren 28ko Sorgin Dantza prestatzeko entseguak hasiko dira. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberrira joango dira.  
 Okendo plaza, 20:00etan.

## ASTEAZKENA 8

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
 LH 1-2 mailako ikasleek *Amets batean bezala* oholzaratuko dute, eta LH 3-4 mailakoek, *Zer nahi du*.  
 Kultur etxea, 09:30/10:45/19:00.

## OSTEGUNA 9

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
 LH 2-3, LH 4-5-6 eta DBH1 taldeek *Zubietan murgiltzen* ikuskizuna emango dute, eta DBH 1-2 taldekoek, *Zeroen mundu zoroa*, arratsaldean soilik, 19:00etatik aurrera.  
 Kultur etxea, 10:00/19:00.

**LASARTE-ORIA Sorgin Dantza**  
 Ekainaren 28ko Sorgin Dantza prestatzeko bigarren saioa egingo dute. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberrira joango dira.  
 Okendo plaza, 20:00etan.

## OSTIRALA 10

**LASARTE-ORIA Emanaldiak**  
 Euskal dantza sorkuntza emanaldiak: DBH 1-2, DBH 4 eta 1. Batxilergoa. Zoroen mundu zoroa antzezlan, DBH 1-2.  
 Kultur etxea, 12:00etatik 13:00era.

**LASARTE-ORIA Emanaldiak**  
 Helduen taldeak ariko dira: *Ilargi beteko eguna* antzezlan eta dantza garaikidea egingo dituzte.  
 Kultur etxea, 20:00etan.

## ZINEMA

USURBIL	'Doctor Strange'	'Can't live without you'	'Jurassic Park'
URBIL	Ostirala 3	Ostirala 3	Ostirala 3
'Top Gun: Maverick'	15:55, 18:55, 21:55.	15:45, 19:15, 21:35.	18:45.
Ostirala 3	Larunbata 4	Larunbata 4	Larunbata 4
15:50, 17:00, 18:05, 19:00, 20:10, 21:15, 22:10.	15:55, 18:55, 21:55.	12:30, 15:45, 19:15, 21:35.	18:45.
Larunbata 4	Igandea 5	Igandea 5	Igandea 5
12:20, 15:50, 17:00, 18:05, 19:00, 20:10, 21:15, 22:10.	15:55, 18:55, 21:55.	12:30, 15:45, 19:15, 21:35.	18:45.
Igandea 5	'Live is life'	'Jujutsu Kaisen O'	'Sonic 2'
12:20, 15:50, 17:00, 18:05, 19:00, 20:10, 21:15, 22:10.	Ostirala 3	Ostirala 3	Ostirala 3
	16:00, 18:40, 21:00.	16:15, 21:25.	15:50.
	Larunbata 4	Larunbata 4	Larunbata 4
	12:15, 16:00, 18:40, 21:00.	12:30, 16:15, 21:25.	12:15, 15:50.
	Igandea 5	Igandea 5	Igandea 5
	12:15, 16:00, 18:40, 21:00.	12:30, 16:15, 21:25.	12:15, 15:50.
			'The Northman'
			Ostirala 3
			16:05.
			Larunbata 4
			16:05.
			Igandea 5
			16:05.

## LARUNBATA 11

**LASARTE-ORIA Emanaldiak**  
 Euskal dantza, HH5 eta LH1-2. Euskal dantza sorkuntza: LH 5, DBH 1-2-4, Batxilergoa, gazteak eta helduak.  
 Kultur etxea, 20:00etan.

## IGANDEA 12

**LASARTE-ORIA Bertso saioa**  
 Izan Iñurrik eta Kukukak antolatuta Tabuen kutxatik oholtzara emanaldia.  
 Sarrerek 15 euro balio dute.  
 Kultur etxea, 18:00etan.

# Motorrak bero-bero, asteburuko trakarako

Teresa sorgina gaur jaitsiko da Zabaletara, hilak 3, 18:45ean. Igandera arte, mota eta zapore guztietako jardueraz gozatuko dute auzora bertaratzen direnek, goizetik hasi eta goizaldera arte. Aurreneko festa egunetako protagonistak etxeko txikienak izan dira

## Txintxarri

Haurrak izan dira Zabaletako jaietan gozatua hartzen lehenak, lehenengo egunetako jarduera gehienak haiei zuzenduak izan baitira: eskulanak, margotzea, talentu bila, serigrafia, apar festa, antzerkiak... Eguraldi ezin hobea lagun, ederki pasa dute etxeko txikienek, eta baita lagun izan dituzten gurasoek ere, jakina. Pilotaleku alboko gunean jarri dituzte txosnak aurtan, eta hasiera-hasieratik sekulako arrakasta izan dute: janaria zerbitzatzen duten gunean, esate baterako, dena saldu dute.

Lantaldea aldizkari hau inprentara bidaltzen ari zen



Haurrak izan dira lehenengo festa egunetako protagonistak. TXINTXARRI

bitartean, atzo arratsaldean, hilak 2, auzotarrek pintxo potea egin zuten, astebururako motorrak berotzeko. Baten batek komeriak izan zituen jatekoa eta edatekoa eskuetan mantentzeko, Bea Egizabalen bakarrizketa umoretsuan barreari eutsi ezinda. Haurrek, bitartean, apar festa eta bestelako ur jolasak egin zituzten. Eguna ixteko, guztiek batera, Gas gas dantzatu eta japoniar bonbak egin zituzten.

## Aldaketa bat egitarauan

Gauzak horrela, auzoko festak ekuatorera iritsi dira. Hiru egun igaro, eta beste hiru falta dira, eta a zer nolako hiru egun, gainera: Teresa sorgina jaitsiko da gaur, hilak 3, 18:45 aldera, eta festa lehertuko da gero. Pertsonaia horren atzetik etorriko dira kontzertu, algara, dantza, akelarre, bertsolari, proba misto eta beste hamaika jarduera.

Jaien antolatzaile den Zabaleta Auzolan elkarteko kideek jakinarazi dutenez, aldaketa bat egin behar izan dute egitarauan. Rock gaueko gonbidatu bat zen Rukulak -Oihan Agirretxe

herritarrek jotzen du bateria- ezin izango du emanaldia eskaini, taldekide baten osasun arazoak tarteko. Haien ordez, Lasarte-Oriako zenbait gaztek osatutako Louh taldea igoko da oholtzara. 00:00etan hasiko dira kontzertuak. Hilaren 3, 4 eta 5ko egitarau osoa agerkari honetan bertan kontsulta dezakezue, 15. orrian argitaratu dugun agendan.

## Auzoaz eta jaiiez, Euskadi Irratian

Tokikom bateragunearen bidez, TXINTXARRI-k tarte bat izaten du Euskadi Irratiko *Baipasa* saioan, bizpahiru hilabetean behin. Zabaletako jaien aitzakiarekin, auzo elkarteko bi lagun gonbidatu zituen: Kontxu Iartza eta Goizane Lopez elkarrizketatu zituen Tere Beloki kazetariak. Esteka honetan entzun dezakezue: <https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1654073988272-zabaleta-auzoa-hizpide-euskadi-irratiko-baipasa-saioan>.

Paperean ez ezik, sarean ere ari gara jasotzen Zabaletako festek ematen dutena, kanal berezi batean. Hau da esteka: <https://txintxarri.eus/bereziak/zabaletako-jaiak-2022>.




Deskontu bereziak herrikoentzat!

## San Pedrotako zenbaki bereziak

## ekainaren 24an eta uztailaren 8an

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) | 646 82 44 66 



**Etzerako argi LED aproposenak ditugu**

- Neurria eta diseinu anitzak
- Hiru argi tonuetan: epela, neutro eta hotza

Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA  
Tel. 943-36 10 80 eta 600 85 75 86 





[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)